

Ze barri?

1998
ABENDUA

ESKORIATZA eta GATZAGAKO HILABETEKARIA

26 zkia.

Urlatik Landetara

Udazken kulturala

Elkarrizketa:

Joxema Bergaretxe

Erreportaia:

Gorosari abesboitza

**Gabon zoriontsuak
eta urteberrion
guztioi**



**LEGEZKOA
FISKALA
KONTULARIA
LABORALA
LAGUN-ARO ASEGUURAK**

ALDETEC



----- **TASAZIOAK**
----- **PERITAZIOAK**
----- **PROIEKTU ING.**
----- **OBRA ZUZENDARITZAK**
----- **ERREFORMAK**

Gastañadui, 7
Tel.-Fax. 943 71 54 36

20540 **ESKORIATZA**
(Gipuzkoa)

Gastañadui, 7 - bajo
Tel.:908-774133 Tel.-Fax 715436 **20540 ESKORIATZA**

ANGEL ASEGUROAK

Autoak, Etxeak, Bizitza, Istripuak,...

Arana, 19 Behea- Tfnoa: 943- 715203- ESKORIATZA

BEIRALAN



- ◆ **Komunerako altzari eta manparak**
- ◆ **Ispiludun armairu aurrealdeak**
- ◆ **Beirate artistikoak**
- ◆ **Salarako mahaiak**

KRISTALDEGIA

Herriko plaza ☐ 943 79 81 78
ARETXABAETA

Argitaralpen honen edizioko laguntzaile

En la edición de esta publicación colabora

kutxa

*fundazioa
fundación*



DORLETA

Aranburuzabala, 22 -bajo
Tfnoa.: 943 71 51 20

ALDI
JANARI DENDA

Hidalga, 8
Tfnoa: 943 71 45 42

AZKOAGA

ESTANKOA

Zure zerbitzura

**MIRENTXU
TABERNA**

Tfnoa. : 943 714167

Kafe goxoa hartzeko

TOKI ALAI

Taberna

Tfnoa.: 714729

**KARAJILOETAN
ESPEZIALIZATUA**

EROSLE

**HARATEGIA,
FRUTATEGIA eta
BESTELAKOAK**

Aranburuzabala, 3
Tfnoa: 943 714546



Aingeru Ibiltokia, z/g.
Tfnoa.: 943 715061

TXAPA, MARGOA eta MEKANIKA

REPARACIONES LENIZ, C.B.



Industrias Olabarri, S.A.

Arana, 20 • 20540 ESKORIATZA (Gipuzkoa)
Tfnoa.: 943 715267 - 714272 • Faxes: 34-43 - 714061

LENIZ
AUTO ESKOLA

tel. 943 71 41 86

Gida baimen guztiak!

EIZMENDI

okindegia eta gozotegia

Eduardo Gorosari plaza
Tfnoa: 943 715417



ALTUNA

Harategia

Etxean hazitako okela

San Pedro, 3 • Tf. 943 714104
HARATEGIA • Tf. 943 714464

**Hemendik aurrera
koloretako publizitatea
sartzeko aukera izango
duzu ZE BARRI?
Eskoriatzako herri
aldizkarian.
Tel. 943 71 40 77**

JOXEMA BERGARETXE

Joxema Bergaretxe Eskoriatzako Udaleko enplegu dinamizatzailea dugu. 30 urteko soziologo arrasatear honek EITBn formakuntza lanak egin zituen, eta lau hilabete daramatza Eskoriatzako lanpostu honetan. Berarekin solasalditxo bat izan genuen lanaren inguruko berriak eta bere helburuak hobeto ezgutzeko, bere kezketako bat horixe baita, bere lanpostua eta bertan eskeintzen den zerbitzua ez ote den ezezagunegia eskoriatzarren artean.

1- Azalduiguzu zertan datzan konkretuki zure lana.

Nere lana urtebetaroko lanpostu bat da, eta batez ere bi ardatzetan finkatzen dela esan daiteke: batetik, enpleguari buruzko informazioa eskeintzen diogu hona datorrenari, eta bestetik, aholkularitza. Informazioaren zerbitzua modu ezberdinetan gauzatuko da: tabloien bidez, pertsonalki hona datorrenari emanaz, edo sortu dugun datu base baten bidez. Aholkularitza zerbitzua aldiz, norbaitek ekar dezakeen proiektu baten biabildade plana eramatean datza.

2- Nolako harrera izan du herritarrengan?

Ba egia esan ez dut uste zerbitzua oso ezaguna denik oraindik. Dena den, lau hilabete hauetan 60 pertsona inguru

hurbildu dira honaino, bakoitza bere baharrei irtenbidea emateko asmotan: batzu lan bila, beste batzu informazio eske, ...

3- Gizonezko edo emakumezkoak gehiago?


Emakumezkoak, orainarte behintzat, askoz gehiago izan dira, %80 inguru.

4- Zer dela eta uste duzu ematen dela ezberdintasun hau?

Egia esan egoera hau orokorra da bai Eskoriatzan, eta bai bailara osoan ere. Langabetuen zatirik haundiena emakumezkoek osatzen dute.

5- Orokorrean nola ikusten duzu enpleguaren egoera?

Ez da oso ona. Lanpostu on bat ateratzen baduzu, jende ugari joango da lanpostu horren bila. Honek esan nahi du daukanarekin ez dagoela oso



Joxema Bergaretxe enplegu tabloian gustora. Datuek langabezi gutxi dagoela badiote ere, lanpostuen kalitatea ez da batere ona.

6- Gerorako helbururen bat?

Lehenengo helburua eskuarte dugin proiektua gauzatzea eta finkatzea da, baina badaukagu enplegua sustatzeko fundazio bat sortzeko asmoa, herriko talde ezberdinek osatua.

7- Zurekin kontaktuan jarri nahi duen edonork, nola egin dezake?

Astelehenetik ostegunera arratsalde egoten nahiz, 15tatik 18:45ra; ostiralean, aldiz, goizez (10-13:45). Etor dadila jendea, edo dei dezala bestela 943-714688 zenbakira, gu laguntzeko eta proposamenak entzuteko prest gaude eta.

Enteratu al zara Gorosarri abesbatzak utzi egingo diola bere jarduerari? Zer deritzozu?

KALEKO IRITZIAK



Ohiana Aranburuzabala

Ez, ez nekien ezer, baina horrela bada, ba beste bat egin beharko dugu, ezta?



David Arrieta

Ez dut ezer entzun. Normala da jendea erreta egotea. Dana dala, erraza da hori esatea, baina gero joan ez da inor joaten.



Gorka Azpitarte

Egia esan ez nekien, baina pena bat da, herrietan horrelakoak edukitzea ondo baitago.



Pakita Alegria

Zerbait banekien. Hori jende gaztiengan dagoen interes faltagatik da. Betikoak ezin dira betirako egon, eta jende gaztiak mugitzen ez badu....



Ohiana Larringan

Askatasuna, aukera anitzen artean eta besteena bahitzen ez den eanean, norbere aukera pertsonala da. Nik ezin dut hori baino gehiago esan inplikaturik ez nagoen artean. Oso erraza da kritikatzeko parte hartzen ez denean.



Gartxot Zubizarreta

Ez nekien. Pena bat da, koral bat herrian edukitzea ez baita txarra, baina ni neu ere ez nintzateke joango abestera.



ZE BARRI?

Argitaratzailea: AXTROKI KULTUR ELKARTEA

Erredakzio kontseilua: Iñigo Biain, Josu Azkarate, Garikoitz Kortazar, Andoni Bengoa, Lorea Agiriano eta Lourdes Martinez.

Kolaboratzailea: Iñaki Agiriano, Aitor Urrutia, Asier Errasti.

Inprimategia: Eguzkigraf, Koop. Elk.

Tirada: 2.000 ale

"ZE BARRI?" aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin"



Eskoriatzako Udalak diruz lagundutako aldizkaria
Euskara Batzordea



...UDAZKEN KULTURALAK JARRAITU DU

INTSUMISIOAREN INGURUKO ERAKUSKETA

Intsumiso taldearen eskutik Elgoibartik zetorren erakusketa bat egon zen Eskoriatzako Kultur Etxean erakusgai. Bertan mobilizapenen une ezberdinak ikus zitezkeen (manifestaldiak, protestak,...), baita Eskoriatzak bizitako une intsumiso bat baino gehiago ere.

Erakusketa benetan arrakastatsua izan zen (?), lau egunetan zehar 30 pertsona hurbildu baitziren begirada bat botatzera. Aste horretantxe bertan bideo emanaldi bat eta mahai inguru bat ere izan ziren, eta egia esan eserlekuekin arazoak izan ziren, baina ez esertzeko lekuen faltagaitik, INOR joan ez zelako baizik.

Eskoriatzako intsumisoen izenean eskerrak denei, baina batez ere han agertu zirenei.



GOROSARRI DANTZA TALDEA

Gorosarri dantza taldeak Eskoriatzako dantza peto-petoak eskeini zizkigun Udazken Kulturalaren barruan. Eguraldi politik lagunduta, gozagarriagoa egin zitzaigun dantza emannaldia.



TAKOLO, PIRRI TX ETA PORROT X

Azaroaren 19an Takolo Pirritx eta Porrotx pailasoek Eskoriatzako kiroldegi berria betetzea lortu zuten. Antolatzaileek esan digutenez oso pozik daude jendeak emandako erantzunarekin. Aurtengoa 4. urtea da Axtroki Kultur Elkarteak pailaso hauek

ekarri dituen eta urtetik urtera partaidetza hobetzen joan ei da. Ihaz arte frontoian egin den arren, aurten azken lanaren estreinaldia zela eta Kiroldegi berria erabiltzea erabaki zuten, eta merezi izan duela esan digute; antolatzeko orduan lan gehiago suposatu duen arren emaitza askoz ere dotoreagoa izan dela, bai leku aldetik, bai giro aldetik (frontoia baino askoz ere epelagoa).

pailasook eta han ikusi genuena ikusita baita bertara inguratu ziren gaztetxoak ere.



Takolo Pirritx eta Porrotx

Obra berria, Baserrian, orain arte egin dutenetan haundiena izan da. Guztira 17 bat lagunek parte hartzen dute. Aurten arte Eskoriatzara aurreko urteetan estreinatutako obra ekarri duten arren, aurreko urteetan egon den erantzuna kontutan izanik, eta obra berria aurreratuta zutela ikusirik, Eskoriatzan estreinatutako aukera eman zieten Axtrokikoei. Zorionez, bai leku aldetik eta bai jende ikusle kopuru aldetik ere gustora joan ziren

Azkenik, ekintza hau antolatzen lagundu zutenei, Kultura eta Euskara batzordea, Udaleko brigada, ikastolako guraso eta beste guztiei eskerrak emateko eskatu digute antolatzaileek, dena ongi atera zedin egindako ahaleginagatik.

...ETA GABONAK GAINean DITUGU



Gabonetan bada erereibindikaziorako tokirik ere

GABONETAKO EGIRTARUA

Abenduak 24, osteguna, Gabon Eguna

*Goizeko 9.30etan 11-16 urte bitarteko gazteak frontoian elkartuko dira elizateetara abestera joateko.

*Goizeko 10.30etan herriko haurrak Intxaurtxuetan bilduko dira Apotzatik datorren Olentzerori ongi etorria egitera joateko

*Ondoren, hurrek gaztetxoek eta Olentzerok txistularien laguntzaz herria alaituko dute dute gabonetako abestiekin.

*Goizeko 12.30eta Trikitixa Eskolako ikasleekin kalejira.

*Ordu bata aldera denok plazan bildu eta Olentzerok haurren eskutitzak jasoko ditu (Aurten Olentzerok ez du oparirik banatuko plazan. Haurrak laguntzeko kalean zehar begiraleak egongo dira).

*Arratsaldeko 6etan zaharren egoitzan elkartu eta herriko

kaleetan abestu beharreko kantuen entseia egingo da. Animatu eta parte hartu!

*8.30tik aurrera Olentzero kalez-kale ibiliko da herritarron kantuen laguntzarekin.

*Arratsaldeko 8etan **Bai Euskarari** kanpainaren aldeko giza katea egingo da herriko plazan.

(Bai goizean, bai arratsaldean, herriko plazan gaztina erreak jateko aukera egongo da)

Gabon egun hau oso berezia denez, herritar guztiok baseritar arropak jaztera animatu nahi zaituztegu.

Abenduak 26, larunbata

*Futbito txapelketa. Taldeak mixtoak izan daitezke eta 10-16 urte bitarteko gazteek osatutakoak (Goizeko 10etatik aurrera polikiroldegian. Partaide guztientzat opariak egongo dira).

Abenduak 28, 29 eta 30

Haurrentzako parkea herriko pilotalekuan. Goizeko 11.30etatik letara eta arratsaldeko 4.30etatik 8etara. Bertan, 3-14 urte bitarteko haur eta gazteentzako aparatuak egongo dira.

Urtarrilak 2, larunbata

Kontzertua: Naroa Enekotegi mezzosopranoa eta Aitor Olea organujolea 19.30etan parrokan.

Urtarrilak 5, asteartea

Erregeen kabalgata 18.30etan (Oharra: iaz parte hartzeko jenderik ez zegoenez kabalgata suspenditu egin zen; aurten egiten saiatuko gara, baina horretarako eskoriatzarron laguntza beharko da).

Urtarrilak 6, asteazkena

Musika Eskolako bandaren gabonetako kontzertua. Eguardiko letan, parrokan.

BAI EUSKARARI XXI.MENDEKO AKORDIOA

KONTSEILUAK antolatuta Euskal Herri osoan aurrera eramaten ari den kanpainaren baitan Eskoriatzan ere batzordea eratu da Udaletxeko euskara batzordeak deituta. Batzordean Jose Arana-Almen ikastola, Luis Ezeiza Ikastetxea, Axtroki Kultur Elkarte, Jubilatuen batzordea eta Gorosarri dantza taldea egon ziren.

Guztien artean abenduaren 24rako giza katea antolatu da herriko enparantzan arratsaldeko 8'tan. Giza katearen inguruan kantua abestu eta oraindik ez dakigun beste ekintzaren bat ere prestatzen ari ei dira.

ABENDUAREN 24an EMAN ONGIETORRIA OLENTZERORI **eta** **ESAN BAI EUSKARARI!!!**

... eta abenduaren 26an

EUSKAL HERRIKO ESTADIOAK BETETZERA

Eskoriatzatik GASTEIZko MENDIZORROZara joateko autobusa antolatu da eta izena Arrano Tabernan eman daiteke.

Eskoriatzako Gorosarri abesbatzak agur esango dio orainarteko bideari

6 urte, asko ez badira ere, luzeak dira gurdiari tiratu behar dion astoarentzat. Antzerako zerbait gertatu zaio, inori asto deitu nahi gabe, ezta gutxiagorik ere, Eskoriatzako Gorosarri abesbatzari. Urteak joan, urteak etorri, edonork dauka nekatzeko eskubidea, eta hare gehiago inork ez badio bere bidean laguntzen. Horixe da, hain zuzen, Gorosarrikoei gertatu zaiena. Beraien hitzetan, "jendearen pasibitatearen aurrean minduak sentitzen gara, ilusiorik gabe, alde batera utzita".



1983.ko San Pedro jaietan izan zen Gorosarriren lehen kontzertua

Gorosarri abesbatza 1983ko urtarrilean jaio zen Eskoriatzako 50 inguru lagunek osatuta. Herri honek badu bere historian zehar organujole eta konpositori garrantzitsurik, eta hoiengan artean koka daiteke Eduardo Gorosarri herritarra, beranduago herriko abesbatzari izena emango zion musikoa.

urteetan, ...); bestalde, kontzertu eta ekitaldi ugaritan parte hartzera gonbidatzen dituzte, nazioarteko birak ahaztu gabe. Guzti honek taldekideak animoz betetzen ditu, abeslariaren kopurua 65 kide taraino heltzen delarik. Abesbatzaren ia lehenengo hamarkadan, 1991 urte ingururarte, erreperitorioa a capella deritzon erako piezek osatzen zuten, polifonia eta

batera egindako Carl Orffen Carmina Buranaren interpretazio gogoangarria, edo, besteak beste, Bergarako Orfeoiarekin, Zumarragako Goiargi abesbatzarekin eta aipatu Goikobalurekin batera abestutako Berliozen Te Deum.

... gainbehera...

Baina garai zoriontsu hauek, guztiek izan ohi duten antzera, gainbehera jasan behar izango dute bizi dugun hamarkada honen erdialdetik aurrera. "Ulergarria den bezala, eta urteek aurrera egin ahala, jendeak abesbatza utzi egin du. Baina ez da inor berririk etorri" azaltzen dute abesbatzakoek. Honela, eta adibide gisa, Gorosarri abesbatza sartu zen azken eskoriatzarra 1996 urtean sartu zen. Datu honekin batera, ez da ahaztu behar Gorosarri bizirik jarraitu zuela taldera hurbildu zen hainbat arrasatearri esker, azkenean abesbatzaren erdia inguru zirelarik. Baina abeslari berriak ez sartzearekin abeslari hainbatek taldea uzten duela gehitzen badiogu, egoera jasanezina bilakatzen da.



Bartzelonara egindako bidaian jasotako argazkia

Jaiotza...

Taldearen arrakastak eta izenak gora egiten du, alde batetik abesbatzen lehiaketa ezberdinetan lortutako emaitza bikainei esker (Ejea de los Caballeroskoan 3. saria 1984an, eta irabazle 1987an, San Vicente de la Barquerakoan 4. postua 1985 urtean, Villa de Madrid Gabonetako kanten lehiaketan 3. postua 1989 eta 1995

folklore itxuran. Baina aipatu urtetik aurrera, musika sinfonikoak ere pisua hartuko du (Vivaldi, Mozart, Hayden, Carl Orff, Berlioz, Saint Saëns, Albiboni, ...), erreperitorioan sartuz eta orkestra, pianujole eta organista ezberdinekin kolaboratuz. Baina kolaborazioak beste abesbatza batzuegana ere heltzen dira, musika sinfoniko-koralaren esparrua jorratuz. Aipagarriak dira arlo honetan Arrasateko Goikobalu abesbatzarekin

"Egoera honek erre egiten du, eta bere eraginak nabarmenak dira", diote taldeko kideek. "Honela, jendeak entseutara joateari utzi egin dio, musikarako gogo gutxi nabari da, eta egoerak eraginda zuzendariak alde egin behar izan du".

Pagotxa honi aurre egin nahian, koralista berriak erakartzeko kanpaina ezberdinak egin dira, entseiu irekien

bidez, jendarekin kontaktatuaz, eskutitz pertsonalizatuekin, Teleskon elkarriaketak eginaz, prentsaren bidez, ... Baina guztia alferrik.

... eta agurra...

uzten, eta itxaropen izpi bat botatzen dute airera: "Duela 16 urte zegoen kezka herri oso bat mugitu zuen, eta Gorosarri abesbatza sortu zen. Kezka horixe bera denbora bat barru berriz sortzea da gure nahirik haundiena". Hala

Gorosarri abesbatzak larunbatean, abenduaren 19an, egin zuen azken emanaldia Eskoriatzan. Bertan, eta agur modura, ondoren transkribatu dugun gutuna irakurri zieten bertan bildutakoei.

Kaixo lagunok:

Duela 16 urte, Herrikoia elkarte desagertu baino lehen, elkarte honek zuen asmo haundienetako bat gauzatu zen: Eskoriatzak abesbatza haundi bat izan zezala.

Eratu zen ilusio berberarekin ordaindu zuen Eskoriatzako herriak, eta 80tik gora izan ziren deiari erantzunez frogetara aurkeztu zirenak.

Benetan zoragarria eta ikusgarria izan zen Abesbatzaren sorrera ikusteak. Eskoriatzarren ilusioa beste herrietara hedatu zen eta kanpotarrak ere hasi ziren gure proiektuan parte hartzen.

Abesbatza ez zen denbora pasatzeko leku bat bakarrik; geure abesbatzarekin eta bere eraginez Eskoriatza Gipuzkoako herri bat zela eta bere kokapena ezagutaraztearekin harro sentitzen ginen.

Hala ere, eta zehazki zergatik ez dakigula, denbora joan ahala gutxitzen joan gara eta ilusioa galtzen.

Batzuk utzi beharra zuten, baina ordezkorik zuten etortzen; hala ere, 15 urte hauetan gure jarraitzaile izan zarenontzat eutsi gura izan diogu Gorosarri Abesbatzari.

Baina ordua iritsi dela uste dugu, nahiz eta batzuk oraindik amore ez eman, hor bazterrean, aparkatuta moduan uzteko; berriro ere Eskoriatzako Gorosarri Abesbatza berpizteko gogoz beste batzuen indarren eta kemenaren zai

Ea ba horrela gertatzen den; ea berpizte orduan guk denok bertan parte hartzen dugun eta zuek hor behean zareten, edo hobeto hemen goian gurekin, bakoitzak beretik bihotz zatitxo bat ematen abesti bakoitzean.

Besarkada bat guztiei, Gabon zorionsuak pasa ditzazuela, eta



Avilesen ere izan direla frogatzen duen argazkia

Amaiera askok espero zuten bera izan zen. "Momentu honetan eta jendearen pasibitatearen aurrean minduta gaude, eta alde batera utziak, ilusiorik gabe (...) eta horrela ezin dugu jarraitu, min asko ematen digun arren". Hauexek dira Gorosarri abesbatza alde batera uztea erabaki duten koralisten hitzak. Baina ez dute beren mezua hain modu ilunean

bedi, baina ordurarte hor doakizue Eskoriatzarren Agur Jaunak sentituena. Eskerrikasko herriaren izenean eman diozuenaren ordain xume bezala, eta eskerrikasko horrenbeste lan egin duten Luis Ignacio Ruiz de Alegria, Isabella Blezien, Goio Eskibel, Oskar Berezibar, Manu Pedreira, Cristina Cubillo eta batez ere bere ahotsarekin lagundu duen abeslari bakoitzari.



1998ko San Pedro jaietan eman zuen Gorosarri bere azkenaurreko emanaldia

GAZTETXOEN MENDI IRTEERAK Merezitako dominen banaketa

Joan zen abenduaren 13an, igandea, urte honetako azken mendi irteera egin zen, eta mendizale gazteei beren laguntza eskertu asmoz, buelta egin ondoren domina banaketa izan zen. Guztira 22 domina banatu ziren gazteen artean, brontzezko, zilarrezko eta urrezkoen artean, egindako irteeren arabera.

Azken ateraldi honetan parte hartu zuten mendizale guztiek indarrak berreskuratzeko aukera bikaina izan zuten, menditik bueltan pintxo eta edatekoak aurkitu baitzituzten plazan.

K.D.E.ko antolatzaileek irteera hauetan lagundu duten guztiei eskerrak eman nahi diete, eta bereziki Luis Ezeiza ikastetxeko gurasoen elkarteari. Honekin batera, gogorarazten digute 1999an zehar ere irteera hauekin jarraituko dutela.




Gazte guztiak beren dominekin



Indarrak eraberritzeko ezinbestekoa da urdaila zelabait betetzea

Helduen irteerei dagokienez, iadanik Eskoriatzako Mendizale Elkarteak badabil datorren urterako egitaraua prestatzen. Urtero izaten diren irteerez gain, beste berri batzu ere egongo omen dira, oraindik zeharo konfirmatuta ez badaude ere. Irteera hauek sorpresa izango dira.



Luz Ardiden eski estazioa



ZER DAGO FALTAN ZER DAGO SOBERAN???

Ganuzaneko plataneroen poda berria ikusgai dago dagoeneko. Estatu Batuetatik ekarritako teknika berri honen bidez zuhaitzak indarberrituta ateratzen direla eta, Eskoriatzan jarri da martxan Euskal Herriko lehen esperientzia.

Lehenengo fasea ihaz burutu zen zuhaitzei "esparrago" itxura emanaz, eta aurten bigarren faseari ekin zaio. Bigarren hau lehena baino traumatikoagoa izan arren emaitza ikusgarriak ematen dituela ziurtatu digu tekniko amerikar batek, eta hilaren 28rako edo hasiko omen dira plataneroak lehen adar berriak ematen!!!, SINISKETAN BE!

GURE BERBETAN

Hau errebestiau zuengana ailegau orduko, Gorosarri Korua be desagertuko ei da. Lastimia. Badakitt holako afirmazino bateaz hastia, notizia ezer gozatu barik, gogorra izen leikiela, baina konturaketan bazare, azkenaldi hontan, gauza mordo bat galtzen gabitz. Herrixak euken futbol ekipua galdu ein zan, batien futbol kanpoik ez euela, bestetik ez euela herriko mutilik jokaketan euenik, konsekuentzian, astero-astero han lan ein biheuienak erreta euzela etab. Kontua da futbol ekipo barik geratu gitzela. Beste horrenbeste pasau jaku beste gauza askokin. Esate baterako, ziniaz. Lehen eskoitzarrok bageuken nun emozionau, nun pasau neguko domeka atsalde hotzak, nun esperantzia euki mundu hoba baten, zinien ikusten gauena barrura ailegetan jakulako eta hola geure burua engainetan gaelako, ero albuken geuken neska ero mutilen presentziak aste guztiko momentu txar danak ahaztu eraitteuskulako. Gaur horixe be eztaukou. Ondio denpora asko be ez ta San Biator galdu douna: etxia saldu euiela, euren lanahatik komeni jakiel, azkenien, konfusinua ta dana sartu ondoren, firmak kontuen hartuko ziela, Ittarten etxien etab. geratuko ziela be zabaldu zan, hareipe alde ein euien. Oin Gorosarri Koruai tokau jako txandia.

Hurrengo, Amuska, Axtroki, ero beste erozein izen leike. Kostinua da herri bat beti izengo

dala momentuko herritarrak hori herrixoi izen daila gure dauiena, eta hartu doun bidetik, nortasun barik geraketien direzinuen goiez. Sekula baino gehixau Mondraueko satelitiak moruen geraketan gabitz, hango "ciudad dormitorio" bat moruen. Zinia aittatu dot baina sala de fiestasa be famosua egon zan Eskoitzan oin Museua dan tokixen, gaur barrez, gaztiak alde eitten daue aste atzen normal baten. Honeik danok, ez berba eitteatik beste herri batzuetako Industriadietan tokixak topetan dabitzen fabriken gainien, infraestruturua faltia dala ta. Eta niri datorkittaten hausnarketia da: aurreruzka biherrien, ete goiez atzeruzka?. Zeinek sinistu leike herri hontan, itxuria danez, herritarrape sinisketan eztauienien, makina bat izerdikin sortuten dien gauzak hain samur hiltten itxitta?.

Azkenik, hau eskoitzarkeixiau leiruten eta jarraiketean bozue, ez nixkitzue triste izteik gura Gabonak datozeneko ale hontan, nire gaurko hausnarketa gogor baina erreal honeaz, eta horreatik bialdu gureutsuet besarkada eta apoioik haundixena, kasu hontan, Gorosarri Korukuoi, ta jeneralien, herrixen zerbaittetan sartuta zabitzienui, zueik zarielako, atzen batien, bizi apur bat emuteutsazuenok herriko martxiai; Ta aldi batez, danoi opa dotsuet Gabon zoriotsuak ta urte barri on bat.

GURE BERRIAK

ZE BARRI? Urlatik Landetara, Eskoriatzako aldizkariak itxura berria hartu du eta azaroko zenbakian ikusteko aukera izan zenuten bezela, hemendik aurrera koloretako azalarekin etorriko zaigu. 1999. urterako helburua 16 orrialdetako aldizkaria lortzea da, koloredun azalarekin. Honetan laguntzeko azaroan kazetari bat hasi da lanean, Iñigo Biain. Gaurtik aurrera beraz badakizue, zuengana jotzen duenean ondo hartu eh!

16 orrialde ateratzeak ordea, esfortzu handia suposatuko du gure aldetik, batipat aldi z k a r i a r e n autofinantziaketaren arloan eta hau izango da datorren urterako erronkarik gogorrena: publizitatea

Azkenik, aipatu 1998an zehar erabili dugun kiroldegiko lokala utzi eta San Pedro auzoan Udalak daukan lokaletara pasatu garea. Hori bai, ez zaituztegu ahaztu nahi orain arte zuen publizitatearen bitartez aldizkariari laguntza eman diguzuenok; eskerrik asko.


ZE BARRI? Urlatik Landetara egiten dugun guztion aldetik ZORIONAK ETA URTE BARRI ON!!

LIBURU GOMENDIOA

Liburu honetan, Juan Martin Elexpuru bergararrak Kubara eginiko bidai baten kronika dakarkigu. Kontakizun gordina, testu irakurterreza, arina, konplexurik gabekoa, hurraratzten zaizkigun Eguberritan irakurtzeko bezelakoa. Oso interesgarria, haruntz joatea nahi dutenentzat etorkizun labur-ertain batean, jakin dezaten, alde aurretik, ze egoerakin egin dezaketen topo. Kuba triste dagoela nabari ondorioztatzen da, baina noiz arte ote horrela?



Ze barri?ren koloretako azala jendeari asko gustatu zaio. Ea aurrerantzean ere horrelako arrakasta izaten jarraitzen duen.



Iñigo Biain, liberatu berria

Gaztañadui, 21

Karmanta

Tf. 715387 • ESKORIATZA

E. MAZMELA

**HORTZ
KLINIKA**

Tel. 943 71 47 36



Hona hemen 20. hamarkada inguruko argazki zaharra. Atera zenetik ia 80 urte pasa badira ere, Mazmelako Osinalde baserriko atarian agertzen den Errasti-Pagaldai familiak bi gauza gutxienez adierazten ditu: lehenik, garai hartako baserri giroan eleganzia ezagutzen zela, begiratu bestela beren arropen. Zihurrenik igandetakoak izango dira, apropos jantziak argazkian guapo-guapo agertzeko. Beste alde batetik gizakiak denbora kontrolatzeko duen beharra ere garbi azaltzen da ate gainean dagoen eguzkizko erloju horrekin. Hori bai, areazkoa, pilakin dabilena edo beste edozein erlojurekin parekatuta, eguzkizkoak badauka abantaila bat: egun euritsuetan lanera berandu heltzeko aitzakia bikaina.

AGENDA

DIRU LAGUNTZAK

* 98-99 ikasturtean zehar unibertsitate eguneroko joan etorria egiten duten ikasleentzat garraiorako dirulaguntzak. Epea: urtarrilak 22.

* Estatu espainiarreko edozein folklorearen inguruan ikerketak egiteko dirulaguntzak. Epea: abenduak 30.

LANA

* Arrasateko Udalerako arkitektu bat behar da. Epea: abenduak 24.

* Basauriko Udalerako, tributazio kudeaketarako erdi mailako teknikaria eta sistema teknikari bat behar dira. Epea: abenduak 28.

* Iruñeako Udalean gizarte langile bat eta erdi mailako teknikari bat behar dituzte. Epea: urtarrilak 7.

* Iruñeako Udalerako psikologian lizentziatu bat behar dute. Epea: urtarrilak 11.

* Noaingo Musika Eskolarako, akordeoi, piano eta musika hastapenerako irakasle bana behar da. Epea: urtarrilak 14.

LEHIAKETAK

* Bilbao Hiria pop-rock lehiaketa.

Euskal Herriko nahiz estatu espainiarreko taldeek parte har dezakete, bi modalitateetan: pop-rock edo rock gogorra-heavya. 4 kantaz osaturiko bilduma, abenduak 31 baino lehen bidali behar da.

Pasaiako Udal Euskaltegiak, urteroko ipuin lehiaketa antolatu du. Lanak euskaraz eta gai librean idatziak eta gutxienez 5 folioko luzera izango dute. Epea: urtarrilak 8.

Bergarako Jardun elkarteak, urteroko amodiozko gutunen VII. Lehiaketa antolatu du. Lanak euskaraz idatziak eta gehienez bi orrialdeko luzera eduki beharko dute. Epea: urtarrilak 13.

Portugaleteko Hiria komiki lehiaketa, euskaraz edo erderaz, gai librean eta 4 orrialdeko luzeeraz. Epea: urtarrilak 15.

MENDI IRTEERAK

- Abenduaren 25an TURROI EGUNA AITZORROTZEN
- Abenduaren 31an AIZKORRIRA

OHARRA

Eskoriatzako pilotalekuan sudadera-forro polarra aurkitu da. Deitu 943-796918ra (OSKAR)

JAIOTZAK

Maialen eta Ainhoa Gallastegi Etxabe bikiak Abenduaren 5ean jaio ziren.

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eskoriatza

Udaletxea 943-714407
 Udal Bulegoak 943-714532
 Udaltzaingoa 943-714407
 Euskaltegia 943-792168
 Kultur-Etxea 943-714688
 Gizarte-Laguntzailea 943-714688
 Kiroletxea 943-715328
 Liburutegia 943-714688
 Luis Eceiza 943-714938
 Jose Arana-Almen Ikastola 943-714486
 Almen 943-714964
 Museo-Eskola 943-714688
 Ze Barri? 943-714077
 Talde Antimilitarista 943-715028
 Irakasle Eskola 943-714157
 Osakidetza 943-714452
 Telesko 943-714917
 Taxia 943-714059

Bestelakoak

Eskualde-Ospital (Arrasate) 943-795300
 Gurutze-Gorria (Bergara) 943-76 55 76
 Ertzaintza (Arrasate) 943-797199
 Suhiltzaileak (Oñati) 943-792800
 Renfe (Zumarraga) 943-721515
 Renfe (Gasteiz) (945) 232030
 Pesa (Arrasate) 902 101 210
 Larrialdiak (Arrasate) 771043
 SOS Deiak 112

MENDIZALE FEDERATU TXARTELA

Mendizale federatu karneta berri edo atera nahi duen orok aukera izango du oraintxetik aurrera eta iazko bezala Namaste dendan. Bertan emango dizkizue beharrezko argibide guztiak, baina, dena den, hona hemen aurtengo tarifen zerrenda:

PREZIOAK

Senderismo..... 4500
 Espainiarako..... 5500
 Pirinioak..... 10500
 Europa..... 11700
 Mundua..... 22000

GEHIGARRIAK

Espedizioak..... 25000
 Eskia..... 2500
 B.T.T. 2650

Zaborra

Behar den unean dagokion gunean

Zabor Bilketa:

Igande, Astearte eta Ostegunetan
21:00etatik 22:00etara



DEBA GARAIKO MANKOMUNITATEA
MUNICIPALIDAD DEL ALTO DEBA

El acuerdo del siglo XXI

XXI. mendeko
AKORDIOA

L'accord du XXI siècle

[www://jalgi.com/baieuskarari](http://jalgi.com/baieuskarari)



euskarari

Abenduaren 26an baduzu konpromezu bat - El 26 de diciembre tienes un compromiso - Le 26 décembre tu as un engagement

